

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Espektatiba dantza hauteskunde garaian

Aste Santuko opor egunek eta Athletic-ek irabazitako Kopa finalaren partidak zein haren ondoko ospakizunek hauteskunde kanpaina murriztu dute. Ez daki-gu oraintxe ezohiko kanpaina honek (ba ote da ohikorik) zer eragin izango ote duen azken emaitzan. Azken aldietan hamabost egunez boz bila aritzeko jardunak garrantzia eta eragina izan zutela diote adituek. Ea, bada, oraingoan.

Kanpainaren lerroburu nagusi EAJren eta EH Bilduren arteko lehia bilakatu da, hedabideetan ari diren analistek eta inkestek hala indartuta. CISen azkenak EH Bildu jarri du lehen indar. Aho biko ezpata izan daiteke ezkerreko independentismoa ordezkatzeko duen koalizioarentzat. Irabazteko espektatibak gizentzen duen bezalaxe, espektatiba horiek oso-osorik ez betetzeak frustrazioa ere eragin baitezake, oso emaitza onak lortuta ere. Horregatik, beharbada, haien diskurtsoa, igandeko emaitza baino harago, aurrera begira zabalduko zatekeen aldi politikoa jartzen saiatzen ari dira.

Alternantzia politiko hutsetik haragoko mezuari heldu diote, eta maila batean ezustean harrapatu dituenak. *Sorpasso* delakoak ez du haren mezuaren erdigunea hartu, kooperazio eta akordio aukerak aztertzeak baizik. «XXI. mendeko urte erabakigarrietan beharrezkoa da etorkizuneko herri proiektu sendo bat osatzea, epe ertain-luzeko begiradarekin eta ezberdinen arteko kooperazioan oinarrituta», idatzia du Pello Otxandianok, eta ETBko eztabaidan helduleku horri eutsi zion.

Azken boladan hauteskundeetan izandako behe-ranzko joerak EAJ alertan jarri du. Espektatiba txarrak izan ditu aurreko hilabeteotan, eta horrek aztoratu du mundu hori. Zentzu okerreanean, hil ala biziko erronkatzat hartu dituzte hauteskunde hauek. Ikusgarria

da sare sozialetan EAJko hainbat militante eta, are nabarmenago, gero eta ugariago diren *troll* jelkideak erakusten ari diren zakarkeria. Talkara jotzeko gogoia dute, kanpaina hasi eta egun gutxira Joseba Egibarrek azaldu zuenez: «EH Bildu etxekalte da instituzioetan, kabira zikina botatzen duen txoria».

Espektatibak bete daitezke edo huts egin dezakete. Eneko Anduezaarena bigarren aukeraren kasurik nabarmenetakoa da. Idoia Mendia PSEren buru zela, Mendia ordezkatzeko zuen belaunaldiak aldarte irekia-goia eta, 2011tik aurrera, Aieteko Konferentziaren ostean, abiarazitako garai berrirako jokabide egokiagoa izango zuela zabaldu zen kazetari eta politikarien arteko solas-lekuetan. Espektatiba ez da bete, alajaina.

Gainera, konparazioa ez da denboran egin behar. Une honetan bertan alderatze hori Alderdi Sozialistak beste eremu geografikoetan duen jokabidearekin egin

Alternantzia politiko hutsetik haragoko mezuari heldu dio Pello Otxandianok, eta maila batean ezustean harrapatu ditu denak

daiteke. Nafarroan edo Madrilén gertatutakoek Anduezaaren soslaia are nabariago azaleratzen dute. Nola liteke Espainiako Gobernuak ordezkariak baino jarre-ra hertsia goak izatea? Giltzarrapoaren rola hartu du bere gain, horrek EAJri baldintzarik gabe lotzea ekarri arren eta, hala behar izanez gero, PPren babesaren mende jarri arren. Giltzarrapoa, etorkizunera begira-ko aukerak eta eztabaidak galarazteko.

Espektatiba batzuk hauteskunde egunean eta go-bernua osatzeko ondoko negoziazio saioetan argitu-ko dira, baina beste berri batzuk sortuko dira. Boliek aurrera segituko baitu. •